

## PRIMI EROSTARBE: “Urratzen ez zen eztarria”

Primi Erostarbe Etxeberria Oñatiko Araotz auzoan jaio zen 1907an. Euskal Herriko emakume panderojole eta irrintzilaririk ezagunenetako bat izan zen. Gurasoengandik ikasi zuen panderoa jotzen. Gaztetan Martutenera joan zen taberna batean lan egitera eta ordutik Oñatitik kanpo bizi izan zen.

Pasaian egin zuen bere lehenengo erromeria panderojole moduan soinu-jole batekin batera eta hortik aurrera hasi zen plazaz plaza panderoa jotzen. Euskal herri osoko bazter guztietan jo zituen erromerriak, baita Europako herrialde batzuetan ere: Suitzan, Alemanian eta Austrian, esaterako. Hemen duzue Juan Mari Beltranek jasotako audioa:

<https://www.youtube.com/watch?v=bAOxKODoU7U>

Bertan Primi Erostarbe ari da panderoa jotzen.

Bere irrintziak ere oso ezagunak ziren eta parte hartzen zuen “irrintzi-lehiaketa” guztiak irabazten zituen. Amona berde ere deitzen zioten egiten zuen irrintzi batengatik. Horrela dio irrintziak: “Heldu, heldu, heldu, heldu, heldu aurreko neska gazte horri gerri, gerri, gerritik eta gero pixka bat beheraxeotik!”. Jendea irrintzi horrekin zoratu egiten omen zen eta festako giroan sartu.

Hemen duzue 1971n Donostiako Trinitade plazan egin zen txapelketan jasotako irrintzi horren audioa: <https://www.youtube.com/watch?v=nINsmpSOC0k>



Argazkia: <https://www.soinuenea.eus/es/panderoa/er-30016/>



